BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA
ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

5196

445/2013 DEKRETUA, azaroaren 19koa, «Luisa de Marillac» karitateko elkartea onura publikokoa dela aitortzeko dena.

Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 42. artikuluak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta dauden elkarteak onura publikokotzat aitortu ahal izango dira, baldin eta elkarteok, beren jardueren bitartez, interes orokorra edo guztien ongia lortzen laguntzen badute, eta, horretarako, eskuzabaltasun-, altruismo-, elkartasun- eta aniztasun-balioak nabarmen bultzatzen badituzte.

Lege horren babesean, «Luisa de Marillac» karitateko elkarteak aitorpen hori eman dakiola eskatu du, bere ustez onura publikoko erakundea dela aitortzea merezi duelako, gizarte-bazterketaren aurka egiten duen lanagatik.

Elkartea 1993ko azaroaren 4an eratu zen, eta Justizia Saileko Kabinete Teknikoaren Zuzendaritzaren 1994ko urtarrilaren 31ko Ebazpenaz inskribatu zen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta dago (erregistro-zenbakia: AS/B/04348/1994).

Elkarteak batik bat Bizkaian garatzen du bere jarduera.

«Luisa de Marillac» karitateko elkarteak, eratu zenez geroztik, beharrezko diren jarduerak egiten ditu honako xede hau betetzeko: elkarteko kideengan borondatezko lankidetza sustatzea, laguntza eman diezaieten desgaitasun intelektuala dutenei, hezkuntzan, ekonomian eta/edo familian beharrizan bereziak dituzten adingabeei, eta premia-egoeran eta/edo gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan daudenei; funtsean, xedea da lotura-lana egitea pertsona horien eta laguntza emateko baliabideak dituzten erakunde publiko eta pribatuen artean.

Gizarteak benetan interes orokorrekotzat jotzen ditu jarduera horiek guztiak.

Aipatu 7/2007 Legearen 45.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Jaurlaritzaren Kontseiluak dekretu baten bidez aitortuko du elkartea onura publikokoa dela. Dekretu-proposamena kasuan kasuko sailek (gaiaren arabera) eta, betiere, justiziaren arloan eskuduna den sailak egingo dute, eta azken sail horrek izapidetuko ditu bai prozedura, bai bertan sor daitezkeen auzi guztiak. Agindu hori betetzearren, espediente bat izapidetu da, zeinari erantsi baitzaizkio sailek eta hala eskatu zaien erakundeek egindako txostenak.

Ondorioz, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuak eta Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposaturik, entitate eta erakunde interesatuek aurkeztutako txostenak ikusita, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko azaroaren 19an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe,

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– «Luisa de Marillac» karitateko elkartea, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean AS/B/04348/1994 zenbakiarekin inskribatuta dagoena, onura publikokoa dela aitortzea, bere jardueraren bidez interes orokorraren alde egiten duela uste baita.

Horrekin batera, aitormen horri dagozkion eskubideak aitortzen zaizkio, hain zuzen ere, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 43. artikuluan jasota daudenak.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko azaroaren 19an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
JUAN MARÍA ABURTO RIKE.